

USURBIL

2021eko udal-dirulaguntzak



*Eska itzazu
etxetik atera gabe!*

usurbil.eus/zerbitzu-telematikoak



Usurbilgo Udala



**KONEK-
TATZEN**

USURBIL

2021eko udal-dirulaguntzak

2 ENPLEGUA

4 HIRIGINTZA

5 INGURUMENA

6 KIROLA

7 KULTURA

8 EUSKARA

9 GAZTERIA

10 NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA

10 ONGIZATEA

12 OHARRAK

ENPLEGUA

Hasiz Hazi

Zer da? Zertarako da?

- > Usurbilgo Udalak, ekintzaileei laguntzeko, Kabine elkarteak duen elkarlan gunean egonaldia eta erabilera ordaintzeko 2021eko laguntza deialdia da.
- > Bestalde, ekintzaileei laguntza eskaini nahi die sor daitezkeen enpresa proiektuak garatu ahal izateko. Horretarako Beterri Buruntza eskualdeko Ekinean zerbitzuan eskaintzen diren laguntzez baliatzeko aukera ere izango dute.

Nork eska dezake?

- > Beterri Buruntza eskualdeko udalerriren batean (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) erroldatuta dauden pertsonak, lehentasunez.
- > Enpresa proiektu berri bat garatzen ari diren pertsonak.
- > Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egon eta lan egiteko leku bat behar duten pertsona fisiko nahiz juridikoak.
- > Elkarteak.
- > Sortzaileak, arte eszenikoak, plastikoak, literatura arteak, ikus-entzunezko arte edo kulturako beste zenbait adierazpen artistiko lantzen badiutze.

Eskatzeko epea

- > Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2021ko irailaren 30ean amaituko da.
- > Ebazpenak bi epetan emango dira:
 - Lehen ebazpena: 2021eko maiatzaren 31ra arte aurkeztu dituzten eskariena.
 - Bigarren ebazpena: 2021eko irailaren 30era arte aurkeztu dituzten eskariena.

Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duten ekintzaileentzat dirulaguntza

Zer da? Zertarako da?

> Usurbilgo Udalak, ekintzaileei laguntzeko eta Usurbilen hutsik dauden merkataritza lokaletan jarduera ekonomiko berriak sustatzeko asmoz abiatutako dirulaguntza da.

Bi dirulaguntza lerroren bitartez emango da:

- Enpresa ekimenak abiaraztearen hasierako gastuei aurre egiteko dirulaguntzak.
 - Gehienez ere 5.500 € eskuratu ahal izango da proiektuko.
- Jarduera ekonomiko berri bat hutsik dagoen merkataritza lokal batean irekitzeko, lokalaren alokairu edo erosketa gastuak ordaintzeko laguntza.

2 urtez ordainduko da:

- Lehenengo urtean 6€/m²/hilean, gehienez ere 300 € hilean.
- Bigarren urtean 5€/m²/hilean, gehienez ere 200 € hilean.

Nork eska dezake?

- > Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen edonork, pertsona fisiko nahiz juridikoa, ekintzaile interesatuaren bizilekua edozein izanda, Usurbil edo beste udalerrri bat.
- > Lehenetasuna izango dute:
 - Herrigunean nahiz auzoetan gaur egun herritarrei eskaintzen ez zaizkien zerbitzuekin lotura duten proiektuek.
 - Ixtera doazen edo itxi berriak diren jardueren jarraipenekoak diren proiektuak.

Eskatzeko epea

- > Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2021eko irailaren 30ean amaituko da.
- > Ebazpenak bi epetan emango dira:
 - Lehen ebazpena: 2021eko maiatzaren 31ra arte aurkeztu dituzten eskariena.
 - Bigarren ebazpena: 2021eko irailaren 30era arte aurkeztu dituzten eskariena.



HIRIGINTZA

Usurbilgo herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko

Zer da? Zertarako da?


- > Usurbilen etxebizitzaren alokairua diruz laguntzeko sortua. Diruz lagunduko den alokairua deialdia egiten den urtearen aurrekoa da; hau da, 2021ean 2020ko alokairuak lagunduko dira.
- > Laguntza hauen xedea eskatzaileen ohiko bizilekua den etxebizitzaren alokairuren zati bat ordaintzen laguntzea da; dagoeneko etxebizitza errentan hartuta behar dute, eta horretarako bideratuta dauden gainerako laguntzetarako esku-biderik ez badute (Gaztelagun, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria edo Gizarte Larrialdietarako Laguntza).

Nork eska dezake?

- > Eskatzaileen adina: 18 urtetik gorakoak (edo 16tik gorakoak, emantzipatuta badaude).
- > Errolda: dirulaguntzen onuradun diren bizikidetzaren unitateko pertsona guztiak dirulaguntza jasoko duen etxebizitzaren erroldatuta egon beharko dute dirulaguntza eskatu duten epealdian.
- > Eskatzaileak Usurbilgo udalerrian kokatutako etxebizitza libre baten errentamendu-kontratua- ren titular izan beharko du (norberaren izenean edo errentakide gisa), eta hori izan beharko da bizikidetzaren unitateko eskatzailearen ohiko eta etengabeko etxebizitza. Errentamendu-kontratuaren errentakide guztiak banan-banan orri guztietan sinatua izango dute. Errenta-kontratua- ren iraupenak, gutxienez, 12 hilabetekoa izan beharko du.
- > Eskatzaileak ez du inolako familia-loturarik edukiko etxebizitzaren errentatzailearekin edo haren bizikidetzaren unitateko kideren batekin, odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.
- > Errenta banku-transferentzia edo banku-agiri bidez ordaindu beharko da.
- > Eskatzaileetako edo bizikidetzaren unitateko osatzen

duen kideetako inork ere ez du izango bere jabetzako etxebizitzarik. Baldintza honetatik salbu geratzen dira herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako jabetza osoko etxebizitza baten titularkide direnak, betiere titulartasun ehuneko %50etik gorakoa ez denean eta partaidetzen baliokatastrala 75.000 euro baino gehiagokoa ez bada.

- > Bizikidetzaren unitateko diru-sarreraren muga urteko deialdian zehaztutako kopurua baino txikiagoa izango da.
- > Bizikidetzaren unitateko kideek ez dute udal-ogasunarekin zorrik izango.
- > Eskatzaileak edo bizikidetzaren unitateko osatzen duten kideetako batek antzeko helburua duen beste dirulaguntzaren baten onuraduna izan badaiteke (administrazio honek edo besteren batek emana), ezin izango du dirulaguntza hau jaso.
- > Eskatzaileak edo bizikidetzaren unitateko osatzen duten kideetako batek antzeko helburua duen beste dirulaguntzaren baten onuradun izateko eskubidea izanda ere (administrazio honek edo besteren batek emana), betebeharrak ez bete-tzeagatik edota dokumentazio faltsua aurkezteagatik hura ukatu egin bazaio, ezin izango du dirulaguntza hau jaso.



> Salbuespen egoerak

- Jabetzako etxebizitzarekin lotutako salbuespenak:
 - Bananduta edo dibortziatuta daudenean. Kasu horretan, epai judiziala eta hitzarmen arau-emailea aurkeztu beharko dira, etxebizitzaren erabilera beste ezkontideari eman zaiola egiaztatzeko.
 - Ohiko etxebizitzatik etxe-gabetu dituztenean. Kasu horretan, etxe-gabetze erabakia duen epaia aurkeztu beharko da.
 - Indarkeria matxistako edo familia barneko indarkeriako kasu bat denean. Udaleko Gizarte Zerbitzuek egiaztatutako beharko dute egoera hori.
 - Bere etxebizitza erabili ezin dutenean hondamendiren bat gertatu delako (uholdea, sutea, eta abar) edota suntsituta dagoela legez aitortu izan den kasuetan.

Eskatzeko epea

- > Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 20 laneguneko epea izango da: hau da, apirilaren 8tik maiatzaren 5era arte, biak barne.



INGURUMENA

Ingurumen arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak

Zer da? Zertarako da?

- > Usurbilen 2020. urtean zehar ingurumen arloan egitasmoak laguntzeko.
- > Lehentasunezko ekintzak izango dira: pobrezia energetiko egoerak arintzera bideratuak, energiaren kontsumoa murrizteko egindako inbertsioak, Usurbilgo Energia Jasangarrirako Ekintza Planaren helburuekin bat datozen ekintzak, energia ez berriztagarrien kontsumoa berriztagarrien kontsumoarekin ordezkatzeko ekintzak, energia nuklearra ez kontsumitzen laguntzen duten ekintzak eta hondakinen sorrera murrizteko, eta sortutako birziklapena bultzatzeko ekintzak.
- > Bestalde, Usurbilgo ondare naturala ezagutzeko eta babesteko, baliabideen kontsumoa murrizteko eta airearen kalitatea hobetzeko ekintzak ere lagungarriak dira.

Nork eska dezake?

- > Usurbilen 2020. urtean ingurumen arloan egitasmoak burutu dituzten erakunde publiko nahiz pribatuek.

Eskatzeko epea

- > Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 20 laneguneko epea izango da: hau da, apirilaren 8tik maiatzaren 5era arte, biak barne.

KIROLA

2021eko gizonezkoen eta emakumeen berdintasun jarduera planetako dirulaguntza zuzenak

Zer da? Zertarako da?

- > Usurbilen emakumeen eta gizonen berdintasun kirol-jardueretako planak diruz laguntzea.

Nork eska dezake?

- > Edozein kirol elkartek baldin eta Usurbilgo udalerriari kirolaren arloan jarduerak burutzen baditu.

Eskatzeko epea

- > Lerro honetan dirulaguntzak eskatzeko epea GAOn argitaratzen denean hasi eta 2021eko urriaren 31n bukatuko da.

2021eko kirol elkartenak ez diren kirol jardueretako dirulaguntzak

Zer da? Zertarako da?

- > Usurbilen kirol elkarteak izan gabe antolatzen diren kirol jardueretako dirulaguntza zuzenak ematea.

Nork eska dezake?

- > Edozein elkartek baldin eta Usurbilgo udalerriari kirolaren arloan jarduerak burutzen baditu.

Eskatzeko epea

- > Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 20 laneguneko epea izango da: hau da, apirilaren 8tik maiatzaren 5era arte, biak barne.

2021eko kirol egokituko jardueretarako dirulaguntza zuzenak

Zer da? Zertarako da?

- > Usurbilen jarduten duten kirol egokitutako jarduerari dirulaguntza zuzenak ematea.

Nork eska dezake?

- > Edozein kirol elkartek baldin eta Usurbilgo udalerriari kirolaren arloan jarduerak burutzen baditu.

Eskatzeko epea

- > Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 20 laneguneko epea izango da: hau da, apirilaren 8tik maiatzaren 5era arte, biak barne.

2021eko kirol taldeen ohiko dirulaguntza zuzenak

Zer da? Zertarako da?

- > Usurbilen jarduten duten kirol taldeei norgehiagoka erregimenean, 2021 urtean (edo denboraldia 2021ean amaitzen denean), kirol arloan egitasmoak burutzeko dirulaguntzak ematea.

Nork eska dezake?

- > Edozein kirol elkartek baldin eta Usurbilgo udalerriari kirolaren arloan jarduerak burutzen baditu.

Eskatzeko epea

- > Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 20 laneguneko epea izango da: hau da, apirilaren 8tik maiatzaren 5era arte, biak barne.



2021eko kirol arloko norgehiagoka erregimenekoak ez diren dirulaguntzak

Zer da? Zertarako da?

- > Usurbilen kirol ekintza berezien antolaketara laguntzeko, prestakuntza tekniko zein oinarriko osasun miaketak laguntzeko eta Eskola Kiroleko kuoten ordainketa laguntzeko helburua du dirulaguntza honek.

Nork eska dezake?

- > Ekintza bereziak: Usurbilen kirol ekimenak egiten dituzten pertsona juridiko zein fisikoek eta erakunde publikoek zein pribatuak eskatu ahal izango dute.
- > Prestakuntza tekniko eta oinarriko osasun miaketak: Usurbilgo kirol elkarteak (elkarteen udal-erregistroan inskribatuta egon behar dute).
- > Eskola Kiroleko kuotak: Usurbilen erroldatutako herritarrek.

Eskatzeko epea

- > Eskarientzat, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 2021eko urriaren 30era.
- > Eskola Kiroleko kuoten laguntzak: lehen epea GAO-n deialdi hau argitaratzen den egunetik apirilaren 30era (2020-21 ikasturteko izen-emate berrientzako); bigarren epea irailaren 1etik urriaren 30era arte (2021-22 ikasturteko izen-emateentzako).

KULTURA*

Kultur arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak

Zer da? Zertarako da?

- > Diruz lagunduko dena da kultura arloan ekimenak garatzea, baldin eta Usurbilgo Udalak egiten dituen ekimenen osagarri badira edo ordezkatzeko badituzte edo erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduerak badira, eta, betiere, deialdi honetan ezartzen diren baldintzak kontuan izanda.

Nork eska dezake?

- > Usurbilen ekimenak egiten dituzten pertsona juridiko zein fisikoak eta erakunde publikoak zein pribatuak, betiere, laguntza horien bidez erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jardueraren bat gauzatzeko asmoa badute edota helburu publikoren bat lortzeko lanean badihardute. Usurbil udalerrian beren egoitza duten elkarteak dirulaguntzak lortu nahi badituzte, elkarteen udal-erregistroan inskribatuta egon behar dute.
- > Halaber, Usurbilgoak ez diren entitateek ere eska dezakete dirulaguntza, baldin eta Usurbilen ekimenen bat burutzen badute eta izena emanda badaude dagokien Elkarte Erregistroan eta udalerrirako interesgarriak direla iriztitako jarduerak baldin badira.

Eskatzeko epea

- > Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 20 laneguneko epea izango da: hau da, apirilaren 8tik maiatzaren 5era arte, biak barne.

* Herriko kultur sorkuntza bultzatzeko dirulaguntzaren oinarriak aurrerago kaleratuko dira.



EUSKARA

2020/2021 ikasturtean euskara ikasi dutenentzako dirulaguntza

Zer da? Zertarako da?

- > 2020/2021 ikasturtean euskalduntze- eta alfabetatze-ikastaroak egin dituztenentzako dirulaguntza da.

Nork eska dezake?

- > Usurbilen erroldatuta dauden 16 urtetik gorako euskara ikasleek.
- > Onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntza jasotzeko:
 - Usurbilen erroldatuta egon.
 - Gutxienez, ikastaro osoan zehar % 80ko asistentzia izan (autoikaskuntzaren kasuan aprobetxamendua ziurtatu).
 - Gutxieneko aprobetxamendua gainditu (euskaltegiak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharrekoa).
 - Onuradunek betiere Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra-ren 14. artikulua ezartzen dituen irizpide guztiak bete beharko dituzte.

Eskatzeko epea

- > Laguntza honen oinarriak ekain partean argitaratuko dira.
- > Dena den, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 20 laneguneko epea izango da eskaerak aurkezteko.

Behar ekonomiko bereziak dituzten euskara ikasleentzako dirulaguntza

Zer da? Zertarako da?

- > Behar ekonomiko bereziak dituzten herritarrei euskaltegi matrikularen kostua aurreratzeko dirulaguntza da.

Nork eska dezake?

- > Usurbilen erroldatuta egonik behar ekonomiko berezia duten ikasleek eska dezakete
- > Onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntza jasotzeko:
 - Usurbilen erroldatuta egon.
 - Gutxienez, ikastaro osoan zehar % 80ko asistentzia izan (autoikaskuntzaren kasuan aprobetxamendua ziurtatu).
 - Gutxieneko aprobetxamendua gainditu (euskaltegiak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharrekoa).
 - Onuradunek betiere Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra-ren 14. artikulua ezartzen dituen irizpide guztiak bete beharko dituzte.
- > Dirulaguntza jaso ahal izateko bizikidetzaren kide kopuruaren arabera diru-sarrerara mugak ezarri dira (ikus oinarriak).
- > Ikasturte amaieran betebeharrak bete ez dituekan jasotako zenbatekoa itzuli egin beharko du.

Eskatzeko epea

- > 2020/2021 ikasturtekoak, ekainaren 30a arte.
- > Uztailetik aurrerako ikastaroentzako dirulaguntzen oinarriak ekain partean argitaratuko dira.



GAZTERIA

2020/2021 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituzten herritarrentzako dirulaguntza

Zer da? Zertarako da?

> 2020ko uztailetik 2021eko ekainera bitarte aisialdiko begirale edo aisialdiko zuzendari izateko ikastaroak egin dituzten 16 urtetik gorako usurbildarrentzako dirulaguntza da.

Nork eska dezake?

> Onuradun izateko baldintza hauek bete behar dira:

- Usurbilen erroldatua egon.
- Ikastaroa euskaraz egina izatea eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izatea.
- Ikastaroaren alderdi teorikoa gainditu eta araututako gehienezko epearen barruan titulua lortu. Araututako epean titulua lortu ezean, jasotako dirulaguntza itzuli egin beharko zaio Udalari.
- Onuradunek Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 14. artikulua ezartzen dituen betebeharrak guztiak bete beharko dituzte betiere.

Eskatzeko epea

- > Laguntza honen oinarriak ekain partean argitaratuko dira.
- > Dena den, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita 20 laneguneko epea izango da eskaerak aurkezteko.



NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA

Usurbilgo nekazaritza eta abeltzaintza arloko egitasmoak burutzeko dirulaguntzak

Zer da? Zertarako da?

- > Usurbilen 2020. urtean zehar nekazaritza eta ingurumen egitasmoak burutu dituzten erakunde publiko nahiz pribatuei laguntzeko.
- > Lehentasunezko ekintzak izango dira: Usurbilgo nekazari gazteek ustiapen berriak abiatzeko eta hobetzeko egitasmoak, hildako animalien kudeaketa lanen gastuak, ekoizpen ekologikoa bultzatzeko egitasmoak, Usurbilgo emakumeak nekazaritzan aritzeko ekintzak, azken urteetan utzitako nekazal-lurretan nekazal jarduera berreskuratzeko ekintzak, baserritarren lan-baldintzak hobetzeko ekintzak, bertako abere arrazak berreskuratu edo bultzatzeko abeltzaintza egitasmoak, nekazarien prestakuntza hobetzeko egitasmoak.

Nork eska dezake?

- > Usurbilen 2020. urtean nekazaritza eta abeltzaintza arloan egitasmoak burutu dituzten erakunde publiko nahiz pribatuek.

Eskatzeko epea

- > Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 20 laneguneko epea izango da: hau da, apirilaren 8tik maiatzaren 5era arte, biak barne.



ONGIZATEA

Desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikikoen osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako dirulaguntza

Zer da? Zertarako da?

- > Mendekotasuna edota desgaitasuna duten adin txikikoen osasun egoera eta garapena hobetzeko egindako tratamenduen kostua edo kostuaren zati bat diruz laguntzea.

Nork eska dezake?

- > Desgaitasuna edota mendekotasuna izan eta garapena hobetzeko tratamenduak jasotzen dituzten adin txikikoen guraso edo tutoreak.

Eskatzeko epea

- > Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 20 laneguneko epea izango da: hau da, apirilaren 8tik maiatzaren 5era arte, biak barne.

Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko dirulaguntzak

Zer da? Zertarako da?

- > Usurbildik kanpo dauden pertsonen senideei eta, bestetik, erabaki judizial bat betetzearen ondorioz aldi batez haien ingurune familiarra etorri ezin diren pertsonen senideei aurreko urteko joan-etorrien gastuei aurre egiten laguntzea.

Nork eska dezake?

- > Dirulaguntza hau Usurbilen bizi diren pertsonen senideek eska dezakete, baldin eta horiek ebazpen judizial batengatik, aldi batez zentro psikiatriko, kartzela edo drogamenpekotasun tratamendurako zentro batean sartu badituzte.

Lehentasun ordena ondorengoa da:

- Ezkontidea edo izatezko bikotea
 - Seme-alabak
 - Aita-amak
 - Neba-arrebak
 - Beste senitarteko batzuk
- > Lehentasun ordenan sartuta dauden pertsonen kanpoan uzten dituzte, laguntza jasotzeari dago-kionez, lehentasun maila txikiagoan dauden per-tsonak.
- > Onuradun bakarra egon daiteke barneratu ba-koitzeko. Lehentasun ordena berean bi pertsona edo gehiago egonez gero, kontuan hartuko da bakarrik adinez nagusia.

Eskatzeko epea

- > Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egu-nean hasiko da, eta 20 laneguneko epea izango da: hau da, apirilaren 8tik maiatzaren 5era arte, biak barne.

Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko dirulaguntzak

Zer da? Zertarako da?

- > Gizarte zerbitzuen arloan ekimenak garatzeko di-rulaguntza da, baldin eta Usurbilgo Udalak egiten dituen ekimenen osagarri badira edo ordezka-tzen badituzte edo erabilera publikoko edo gizar-te-intereseko jarduerak badira, eta beti ere, bete behar diren baldintzak kontutan izanda.

Nork eska dezake?

- > Usurbilen Gizarte Zerbitzuen arloan ekimenak egiten dituzten pertsona juridiko zein fisikoak eta erakunde publikoak zein pribatuak, betiere, laguntza horien bidez erabilera publikoko edo gi-zarte intereseko jardueraren bat gauzatzeko as-moa badute edota helburu publikoren bat lortze-ko lanean badihardute, eta elkartearen egoitza

Gipuzkoako lurralde historikoan egonik, zerbitzu hauen onuradunak usurbildarrak baldin badira.

- > Merkataritza enpresak deialdi honetatik kanpo geratuko dira nahiz eta euren jarduerak zerikusia izan gizarte zerbitzuen arloarekin.

Eskatzeko epea

- > Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egu-nean hasiko da, eta 20 laneguneko epea izango da: hau da, apirilaren 8tik maiatzaren 5era arte, biak barne.

Igogailua instalatzeko dirulaguntza

Zer da? Zertarako da?

- > Usurbilen bi solairu edo gehiago izan eta nagu-siki etxebizitzarako erabiltzen diren eraikinetan igogailua jartzeko dirulaguntza da.

Nork eska dezake?

- > Ondorengo baldintzak betetzen dituztenek eska dezakete:
- Etxebizitzaren jabe izatea.
 - Igogailua jarri nahi den etxean gutxienez sei hilabeteko antzinasunarekin erroldatua egotea eta bertan bizitzea.
 - Udalerrri berean igogailua duen bigarren etxebizitza baten jabe ez izatea.
 - Igogailua jartzeko obra amaitua izatea eta igogailua martxan jartzeko Usurbilgo Udalak emandako lehen erabilera baimenaren ziurtagiria izatea oinarri hauek argitaratu aurreko urtean.

Eskatzeko epea

- > Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egu-nean hasiko da, eta 20 laneguneko epea izango da: hau da, apirilaren 8tik maiatzaren 5era arte, biak barne.

Non eskatzen dira dirulaguntzak?

Aurrez aurre, udaletxean

Joxe Martin Sagardia plaza z/g, 20170, Usurbil

Ordutegia: 08:00 / 14:30

Telefona: 943 37 19 51

Posta arrunta

Joxe Martin Sagardia plaza z/g, 20170, Usurbil

Internet bidez

<http://www.usurbil.eus/zerbitzu-telematikoak>

Dirulaguntzen atalean eska daitezkeen guztiak topatuko dituzu.

B@KQ txartela

Dirulaguntzak Internet bidez eskatu ahal izateko, B@KQ txartela* behar duzu: sinadura elektronikoa da, zure identitatea ziurtatzeko balio duena. Usurbilgo Udalean bertan eska dezakezu, edo izenpe.eus webgunean.

Udaleko dirulaguntzak eskatzeko ez ezik, beste erakundeekin tramite elektronikoak egiteko ere balio du B@KQ-k: Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurjaritza, Osakidetza...

*Elkarte edo entitateen kasuan, ziurtagiri digitalak.

Zenbat kostatzen da?

Eskaerak egitea doan da.